

Bizitza erdigunera ekartzeko funtsezko zerbitzuak indartu!

PRENTSAURREKOA
2020/04/17



ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Bizitza erdigunera ekartzeko funtsezko zerbitzuak indartu!

Lehendik ere horrela baziren ere, Covid-19aren krisiak modu nabarmenean azaleratu ditu bizitzarako funtsezkoak diren lan eta zerbitzuak: zaintzak, osasuna, elikagaien ekoizpen eta banaketa, garbikuntza...

Zerbitzu hauetako askok, ordea, orain arte aitortza sozial eta ekonomiko baxua izan dute, ez dute inolako kontrol publiko eraginkorrik izan eta gehienetan azpikontraturiko sektoreak dira. Ez da kasualitatea, emakumeak nagusi diren eremuak izatea, lanen banaketa sexualak eraginda.

Kapitalak negozio iturri bihurtu ditu bizitza sostengatzen dituzten lanak. Lan-baldintzak okertu, emakume eta gizonen arteko soldata arrakala sustatu, zerbitzuak mugaraino kaskartu, pribatizatu eta herritarron kontura irabaziak handitu. Pribatizatu gabe dauden osasun publikoa bezalako eremuetan ere, plantilla murrizketa handiak, lan-baldintzen okertzea eta %40 inguruko behin-behinekotasuna nagusi da. Negozioa handitzeko edota gastu publikoa gutxitzeko, plantilla eta baliabide murrizketak egin eta lan-kargak biderkatu dituzte, sarritan

geroz eta konplexuagoak diren lanetan. Esaterako, bizitza luzatzeak, zahartzarora gaixotasun anitzekin eta gero eta menpekotasun egoera handiagoekin iristea ekarri du, baina horretarako prestatu gabeko zaintza sistemarik gabe, gehienetan etxean emakumeen bizkar edo modu pribatuan eta merkantilizaturiko zerbitzu bidez, plantilla eta baliabide oso eskasekin.

Aitortza falta, gutxiespen, lan-karga eta baliabide faltari aurre eginez, krisiak zerbait erakutsi badigu, langile hauen borondate eta inplikazioa izan da bizitza aurrera ateratzeko. Krisi honek agerrarazi digunaren ondoren, hemendik aurrera, honek ezin du berdin jarraitu. Sektore, zerbitzu eta lan hauek merezi duten lekua, garrantzia, kontrol publikoa eta lan-baldintzak izan behar dituzte.

Jendartea goitik behera aldatzeko premia nabaria da. Lehentasunak, ekonomiaren antolakuntza, zaintza beharrak, ekoizpen eta kontsumo eredua... Horretara bidean eta egungo egoeratik abiatutik, badira ezinbestean eta berehalakoan aldatu eta aldarrikatu beharrekoak.

ZAINTZA LANAK

Zaharturiko pertsonak zaintzea, etxez-etxeko laguntza eskaintzea, aniztasun funtzionala duten pertsonak laguntzea, gizarteak bazterturiko adin txikikoen bidelagun izatea... ezin dira bigarren mailako lan eta zerbitzu izan. Nabarmen ikusi da gure gizartearen eremu honetako gabeziek dituzten ondorio larriak.

Zenbat pertsona hil dira edo egoera larrian daude, zaintza eremu hau ongi antolatu gabe egoteagatik, langile eta baliabide faltagatik, kontrol publiko nahiko ez izateagatik?

Ezinbesteko zerbitzu eta lana da. Laguntza premia handiena duten pertsonak ongi artatzeko eta maitatzeko ongi antolaturiko zerbitzua, langile nahikoa eta baliabide egokiak behar ditugu. Horregatik:

- Zahar-egoitza, eguneko zentro, aniztasun funtzionala duten pertsonentzako egoitza-elkarte, adin txikikoen bizileku eta etxez-etxeko laguntza zerbitzuen berehalako publikakazioa eskatzen dugu, langile guztien subrogazio eta finkatzea bermatuz.

- Esparru guztietako lan-baldintzak langile publikoen lan-baldintzekin parekatzea.
- Langile guztiak jardunaldi osoko kontratua izatea, borondatez kontrakoa eskatzen ez badute, behintzat.
- Langileen kontratatutak mugagabeak izatea.
- Zainduriko pertsonako langile ratioak hobetzea esparru guztietan. Langile gehiagok zerbitzu hobea ekarriko du. Zahar egoitzetan, esaterako, egoiliar bakoitzari 2 orduko zaintza pertsonalizatua bermatu.
- Etxeko langileen lan baldintzak ere zaintza

sistema publikoan ezarri behar direnekin parekatzea. Funtsezko gutxienekoa da langile hauek Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean kokatzea eta Langileen Estatutoa eta lan osasun arautegia beste langile guztiei bezala aplikatzea.

- Langileen lan osasuna bermatzeko neurriak: Prebentzio protokoloak eguneratzea (bereziki arrisku biologikoenak), babes-neurri indibidualizatuak, egoiliarrek mugitzeko tresnak, lanaren gogortasuna kontuan adinean aurrera joan hala lan-zama arintzeko neurriak eta erretirorako koefiziente murritzailak...

OSASUNGINTZA PUBLIKOA TA PRIBATUA

Osasuna bermatu gabe ez dago bizitzarik, are gutxiago, edozein jarduera sozial eta ekonomikorik. Eremu hau desmerkantilizatzea lehentasuna da. Baliabide nahiko eta egokiak behar dira egunerokoan herritar guztion osasuna bermatzeko, baita krisi sanitario berri bati aurre egiteko ere. Horretarako:

- Egunerokoan eta krisi egoeran, baita bere bizia arriskuan jarritz ere, gure osasuna zaintzen duten milaka behin-behineko langile finkatzea ezinbestekoa da. Era berean, arreta egokia eman eta lan-zamak arintzeko beharrezkoa da plantillak handitzea. Iruzur-kontratu bidez ezkutuan dauden edo 2010etik suntsitutako 5.000 lanpostutik gora egiturazko plantillan sartu eta egonkortu behar dira.
- Itun bidez osasungintza publikorako lanean ari diren zerbitzuen publikazioa langileak finko eginez, beti ere kontratazioan ez bada diskriminaziorik izan genero, arraza, hizkuntza, ideologia edo sinismen erlijiosoengatik. Europako Epaitegiaren azken ebazpenek langile hauen subrogazio eskubidea onartzen dute eta kontratu etetea

kaleratzen jotzen dute.

- Krisi honetan lanean aritu diren langile guztiei garapen profesionalean gorengo maila ematea. Era berean, garapen profesionala lanbide guztietara zabaltzea, inolako diskriminaziorik gabe, lanarekin harreman zuzena duten elementuak baloratzuz, euskararen erabilera bultzatuz eta morrontza mekanismoak ekidinez.
- Azken hamarkadan kenduriko eros-ahalmen guztia eta erretiro primak berreskuratzea. Honek %13eko berehalako soldata igoera suposatzen du.
- Lanpostuen balorazioa egin eta arrisku biologikoen aurrean bereziki arriskutsuak diren lanpostuak kontuan izatea.
- Krisian eginiko esfortzua eta uko egindako eskubideak konpentsatzeko: hilabeteko soldataren pareko ordainsari berezia, epe honetan lan egindako denborak balio bikoitza izatea, norbere hautazko 5 egun libre gehiago izatea eta langile-egoiliarrei hartutako arduraren baitako ordainsariak ematea.

GARBIKUNTZA

Garbikuntza egokirik gabe, gure osasuna eta bizitza arriskuan jartzen ditugu eta ez dago lan egiterik. Administrazio publikoak eta enpresa pribatuek garbikuntza bigarren mailan kokatu izan badu ere, krisiak nabarmen agerrarazi digu ezinbestekoa lana dela. Aurrez, greba deialdien aurrean gobernuek ezarritako abusuzko gutxieneko zerbitzuek, garbikuntza funtsezko zerbitzua zela agerian uzten bazuten ere, emandako aitortza eskasak, lan-baldintza eta soldata kaskarrek ez dute hori islatzen. Horregatik:

- Beharrezkoa da administrazio publikoek (osasungintzan, hezkuntzan, justizia

administrazioan, zahar-egoitzetan, garraio publikoetan, suhiltzaile parkeetan, udal eraikinetan, komisaldegietan...) eta enpresa pribatuek azpikontratutako garbiketa zerbitzuak publikifikatzea edo enpresa nagusian integratzea, langileak subrogatuz eta finko eginez.

- Krisi garaian, arrisku biologikoei aurre egitea konpentsatzeko %20ko soldata igoera.
- Lan osasun eta segurtasun protokolo guztiak eguneratu, bereziki arrisku biologikoei dagokienak. Arriskuak desagerrarazi ezin diren esparruetan prebentzio baliabide indibidualak ziurtatu.

ELIKAGAIEN KOMERTZIOA

Beste hainbat jarduerekin batera, infekzio gune nagusi izan da. Alde batetik, gobernuek jakien salmenta zuzenari, herrietako azoka eta hurbileko komertzioari zailtasun handiak jarri dizkio, elikagaien eredu merkantilista eta esplotatzailea indartuz. Eta bestetik, supermerkatu kate handietako langileek presioa izugarria jasan dute zentroak irekita mantentzeko, jarduera luzatzeko, lan-zamak handitzeko, segurtasun eta babes neurri nahikorik gabe lan egiteko edota kutsadurak ezkutatzeko. Horregatik zera eskatzen dugu:

- Krisiak irauten duen bitartean jendaurreko ordutegiak murriztea.
- Epe honetan izandako lan-kargak

konpentsatzeko, hurrengo hilabeteetan, gehienez 100 ordu hileko jardunaldia (jardunaldi osoaren balioa mantenduz) eta hilabeteen 500 euroko ordainsari gehigarria.

- Soldata arrakalarekin amaitzeko %25eko igoera.
- Urteko lan-jarduna 1.592 ordutara murriztea.
- Elikadura subiranotasuna bultzatzeko, hurbileko komertzioa indartzeko eta sektorearen birmoldaketa lantzeko, mahai bat ireki dadila lehen sektoreko eragile, sindikatu, herritar elkarte eta administrazioak osatua, beti ere, egun eremu honetan lanean ari direnen lan aukerak bermatuz.

ANBULANTZIAK

Ezinbesteko osasun zerbitzua izanik, azken urteetan kontrol publikorik ezak eta esleipen ereduak arazo larriak sortu izan ditu zerbitzuan eta lan-baldintzetan. Zerbitzua kudeatu duten

enpresek diru-irabaziak osasunaren eta lan-baldintzen gainetik jarri dituzte. Krisi honetan, lan-ikuskaritzaren ebazpenek beraiek egiztatu dute egoera hau. Prebentzio neurri ezak arriskuan

jarri ditu langileak, gaixoak eta hauen senideak. Hamarnaka langile gaixotu dira eta nork daki zenbat pertsona gaixotu diren langile, gaixo eta senitarteko hauekin harremanetan egoteagatik. Funtsezko zerbitzu publiko batek neurriko trataera behar du. Horregatik:

- Anbulantzia zerbitzuen berehalako publikazioa eskatzen dugu, langile guztien subrogazioa eta finkatzea bermatuz.

- Lan-baldintzak langile publikoenarekin parekatzea.

HAINBAT ONDORIO

- Covid-19 krisi ondoren, gutxietsiak, alboratuak edo murriztuak izan diren hainbat lan, enplegu eta zerbitzuek merezi duten zentralitatea hartu behar dute. Gure gizarte antolamendu, erreproduzio eta produkzio sistemaren gabeziak agerian geratu dira (zaintza arloko hutsune eta injustizia nabariak, funtsezko zerbitzu eta lanen prekaritatea, herritarrak babesteko materiala ekoizteko ezintasuna, funtsezko hainbat behar asetzeko transnazionalen menpekotasuna...). Trantsizio politiko, ekonomiko, ekologiko eta sozialaren beharra dugu: Bizitza, pertsonen eta jendartearen ongizatea bermatzen duten funtsezko zerbitzu eta jarduerak izan behar dute gure gizarte antolakuntzaren erdigune.

- Zerbitzu publikoak eta eta hauen kudeaketa publiko, herritar eta demokratikoa bermatu behar dugu, irabazi-asmoa duten enpresen merkatu eta irabazi logikatik askatuz.

- Osasun sistema osoa birpentsatu Lehen Arreta erdigunean kokatzeko eta balizko hurrengo krisietan erantzuna bertatik eman ahal izateko. Ospitaleetan ere ohe eta baliabide nahikoa izan behar dugu, ohiko ospitaleratzeak behar bezala artatzeaz gain, antzeko krisi egoera bati egoki aurre egin ahal izateko.

- Zaintza lanen antolakuntza eta gizon eta emakumeen arteko banaketa justua bultzatzeko neurriak behar dira. Honi lotuta, zaintza sistema publiko sendoa premiazkoa da, jaiotzatik hil arterainokoa.

- Jendarte osoaren zerbitzura, bizitza arriskuan jarritz, jarduera ezberdinetan lanean ari diren guztiak aitortzeko, egunero txaloka aritzeaz gain, zerbitzua ongi eta arriskurik gabe eman eta lanaren aitortza erreala gauzatzeko baliabide nahikoak eta lan-baldintza egokiak eskaini behar zaizkie.

- Osasuna eta zaintzak bermatuta ez dauzkan gizarte batek ezin du funtzionatu, ezta kapitalismoak hain beharrezkoak dituen irabaziak emateko ere. Krisi honek bizitza, pertsonak, zaintza, harremanak, funtsezko zerbitzuak, ezinbesteko produkzioak eta ekonomia, jasangarritasuna, tokiko ekoizpena eta gertuko banaketa, genero arrakalak gainditzea, justizia eta berdintasuna, politika publiko eta babes sozialaren beharra.. agerian jarri ditu. Irakaspen bikainak utzi dizkigu. Orain da unea gure gizartearen ildo horretatik aldatzekoa. Gure garaia da!